

EIBARKO

TALDEAK

ANTZERKI

Oztopoak gaindituz jota-sua lanean

Datorren Abenduaren 15tik 18ra bitartean, 11 Eibarko antzerki taldeen erakusketa egingo da Unibertsitate Laboraleko antzerki aretoan. Antzerkigintza mundua oso zabala izanik, ez da hala ere kale mailan gehiegi ezagutzen den arte mota. Horregatik eta lerro hauen bitartez antzerkiak merezi duen kokapena aurkitzen saiatuko gara.

Antzerkigintzaren gorabeherak hurbiletik ezagutzeko gogoz, Eibarren ditugun antzerki taldeetako arduradun eta kideekin aritu ginen solasaldian.

Lehenik, **Juan Ortega** «Narruzko Zezen» taldearen arduradunarengana abiatu ginen. Berak esan zigunez; «Narruzko Zezen, talde bezala 1972-73an sortu zen baina aurretik bazen beste antzerki talde bat 69-70an sortua Gaur egun taldean 50 bat kide aritzen dira gurekin lanean, guztiak ere Unibertsitate Laboraleko ikasleak». Hainbat eta hainbat oztopo, kexu, buruhauste eta arazo ekonomiko izanik, txantxetako dirudi hainbesteko ilusioz horretan ihardutea baina, **J. Ortegaren** eritziz, «azken lana, obra amaitua ikustean ikaragarriko poza barneratzen zaigu eta horrek merezi du». Ostiral arratsalde, larunbat eta igandeetan entsaioak izatea ez dirudi esfortzu galanta denik zeren denek gogo biziz joaten bait dira. Talde honetako kide batek adierazi zigunez «beste askotan egun hoietan tabernetara joaten dira edatera, guk, ordea, nahiago dugu aste-lanaren antzerkia egitea, besterik gabe». Ekonomi gaiari helduz, Narruzko Zezen taldearen arduradunak zera adierazi zigun «guk Unibertsitateko diru laguntza jasotzen dugu, lokala ere hementxe dugu. Honetaz aparte, Udaletxeak laguntzen gaitu eta diru apur hauekin nolabait moldatzen gara». Denok dakigu antzerkia ez dela eguneroko bizitzan, laneko solasaldietan, dendetako ipuinetan erabiltzen den gaia eta badakigu baita ere antzerkia bigarren planu batean aurkitzen dela. Honen arrazoia jakin nahi genuen eta **J. Ortega-ren** ustez «arazo hori da garrantzitsua. Antzerkia ez da nabaritzen eguneroko bizitzan eta horrek alde batetara uzten gaitu». Hala ere urrats inportante batzu ematen ari direla arlo hontan aitortu behar. Badirudi Udaletxeak programazio finko, erregularra sortzeko asmoa duela, baina arazo honen mamia **Ortegak** dioenez «jendea antzerkira joaten irakatsi behar zaiola da».

KILI-KOLO TALDEA

Eibarren beste antzerki taldeak daudenez, horiengana zuzendu ginen eritzi gehiago jasotzeko, kontrastatzeko eta antzerki giroa hobeto ezagutu ahal izateko; horregatik bigarren egunean **Iñaki Gallardo**-rengana jo genuen. «Kili-Kolo» taldeko partaidea izanik ez duen erreparorik jarri taldearen gorabeherak kontatzerakoan. Taldea 1981ean sortu zen La Salle ikastetxean babespean baina **Iñakik** ezagutzera eman zigunez «gaur egun, bananduta aurkitzen gara guztiz independenteak gara». Betidanik lan izan badira ere finkoak taldean, orain zortzi partaidek osatzen dute, gidaritzan **Ernesto Gómez-en** esku uzten dutelarik. Zuzendari figura eduki arren, lana egiteko era nahiko librea dute. «Kili-Kolo taldeak umorezko antzerkia jarritzen du eta inprobisazioa dute ikurrintzat baina **Iñakik** zera aipatu zigun «lana guztiz seriozki hartzen dugu, dignitate gehien ematen saiatzen gara gure lanean». Herri mailan jendea ez dela masiboki antzerkira joaten aipatu badugu ere, gai honetaz **Iñakik** zer eritzi zuen jakitea interesatzen zitzaigun eta berak esan zigunez «nazio askotan antzerkia beste edozein asignaturaz bezala irakasten da, gazarrotik bideratu

behar da, antzerkigintzarako interesa piztu egin behar da». «Kili-Kolo» taldeak diru laguntzaren truke, aldundiarekin akordio batetara iritsi ondoren, elkarte kultural bezala funtzionatzen du. Urtean zehar bi lan aurkeztuz diru laguntza jasotzen dute. Udaletxeak ere zertxobait ematen die, hala ere **Iñakik** zioenez «askotan geure poltsikotik jarri behar izaten dugu, horregatik ate guztiak dira ikutu beharrezkoak guzti hau aurrera atera ahal izateko nahiz eta burokrazia guztia desegokia izan».

Iñakirekin solasaldi atsegina amaitzeko aurten aurkeztuko duten obra «Tarzan de los mimo» monologoa izango dela aitortu zigun.

TEATRO INTERIOR

Hirugarren egunean **Ernesto Barrutia** elkarrizketatu genuen. «Teatro Interior» orain dela bi urte sortu bazen ere, aurretik kide berdinak «Teatro Arrate» ezagunean aritzen ziren. Izen aldaketa honen arrazoia nolabait pautu eta bide ezberdinetik obrak landu ahal izatea da: «oraindik ere eszenategi batetara igotzean zirrara barne-barnean nabaritzen bait dugu». Eguneroko bizpauru orduz entsaiatzen pasatzen badituzten arren ez dirudi gehiegi kostatzen zaienik zeren **Ernestok** zioenez «kanpotik deitzen gaituztenean, umeek izaten duten ilusioz abiatzen gara». Diru kontuekin erosotasuna aurkitzea oso zaila izan arren, **Ernesto Barrutiaren** eritziz «arteak defizitarioa behar du izan, bestela industria bihurtuko litzateke». Zaletasunagatik darraitela badakigu baina publikoaren erantzunarekin zer espero duten galdetzerakoan zera erantzun zigun «gu benetan betetzen gaituneak jendeak adierazi nahi duguna ulertzea da, baita ere sententziak biziak, azken finean negar eta barre egitea». Ilgarren Eibarko antzerki erakusketa honetan aurkeztuko duten lana «El zoo de cristal» izango da, **Tenisse Williansen** liburuan oinarriturik. Azkenik elkarrizketari amaiera emateko, Eibar mailan ez al dagoen talde gehiegirik galdetu genion eta zera esan zigun «oso ondo ikusten dut eta hori eta gehiago esango dizut, euskeraz aritzen diren talde guztiei besteei baino laguntza handiagoa eman behar zaie».

ANTZERKI TAILERRA

Azken egunean, **Iñaki Irisarriarengana** jo genuen bera bait dugu «Antzerki Tailerra»-ren arduraduna. Gaur egun hogeit bat ikasle matrikulaturik badaude ere hamar bat dira erregularki ikasketak jarraitzen dituztenak. Etorkizunari begira ez zitzaigun oso baikor agertu **Iñaki**, askok jakingo duzen bezala «Geroa» taldean iharduteak ez bait dio ezertarako denborarik uzten. Une aproposa iruditu zitzaigun «Geroa» antzerki taldeaz galdera batzu luzatzeko, eta zer ezberdintasun dagoen amateur edo profesional bezala ezagunak baina gehienbat ekonomikoak; guk hilerro soldata mahai gainean dugu eta lan tekniko guztia horretara dedikatzen diren langileen eskuetan geratzen da». Egun hauetan Arriaga antzokian izan dira arrakasta bikaina lortuz, aurretik New Yorken izan dira bertan bi sari irabazi dutelarik eta berehala Madrilerara doaz. Hala ere ospe guzti honek ez du **Iñaki** itsutu eta txunditu, ongi bait daki non eta nondik hasi zen eta berak zioenez «laguntza eske datozkigunean prest agertzen gara, baiya baita ere ongi kobratzen badakigu batez ere dutenei».



comercial
SUMOFIC, S.A.

ENPRESA-GESTIO
INTEGRATURAKO
PROGRAMAK,
STANDARAK
ETA NEURRIRA.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

— DATU-BASEAK — OFIMATIKA — MANTENU-ZERBITZUA
• Ekipamandu eta programak • Telemandua
Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 FAX: 70 28 66 EIBAR

ARDAU — DENDA

TABAKOA, ARDAU EDERRAK ETA KABA APARTAK
GABONETARAKO OPARI PAREGABEAK

San Andres Pasalekua 5. Telf.: 11 01 40 EIBAR

Ingurugiroa eta gu

Pasa den Azaroaren 6tik 10ra bitartean Eibarko Udaletxean, Ingurugiroari buruzko ihardunaldiak egin ziren. Lantxo honen helburua ez da jendea koakzionatzea baizik errealitatearen alde izkutuena argitzea. Konklusioak bakoitzak gauzatuko ditu, gure aldetik informazioa eskeintzea baino ez dugu egingo.

Ihardunaldi hauei hasera emateko Mikel Regero biologoa izan genuen lehen egunez, Ekologia eta kontsumo gaia aurkeztu zuelarik. Hainbat erreferentzi historiko aipatu bazituen ere, hitzaldiaren mamia eskema honetan laburtzen zen:



Ikusten den eskema «transporte horizontala» da eta bertan ekologia eta kontsumoaren arteko erlazioa azaltzen da. Kutsadura erabat desagertzeko «transporte bertikala» gomendatzen zuten eta adibide simple batetaz laguntzen zen adierazteko: zuhaitzare udazkena heltzen hostoak goitik behera erortzen zaizkio, hosto hauek lurra aprobetxatu egiten ditu, nolabait esateko jan egiten ditu, azken finean erreziklatu eta hortxe sortzen da arazoa, zeren guk jaurtikitzen ditugun linterne-tako pilak adibidez, ez dira erreziklatzen lurra kutsatzen dutelarik, «transporte horizontal»aren ondorioz. Horregatik gizakientzat eragin negatibozko produktuak

debekatu beharko lirateke. Bigarren egunerako Elena Egurrola biologoa egin zuen berba Bilakaera sozio-ekonomikoa eta ingurugiroaren narradura gaia ikutu eta azaldu zuen. Berak esan zuenez, gaur egun produzitzen diren tresna edo aparailu guztiak

epe laburreko bizitza izaten dute, nahiz eta iraunkorragoak egiteko ahalmena izan. Erabiltzen den teknologia erasokorrak ingurugiro guztiak hondatzen du, azken batean geure kalterako. Sortzen dugun zikinkeria eta kutsadura geuregana bueltatzen da «kate trofiko»aren eraginez. Teknologia honen ondorioz sortu dira hain famatuak diren ozono kaparen zuloa, euri azidoak eta «inberraderrero» efektuak. Faktore hauek eguraldiaren aldaketa nabarmenak sortarazi dute, ondorioak gizarte osoak nozitzen dituelarik. Nahiz eta jadanik izugarritzko kalteak sortarazi, prebentzioa izango genuke irtenbide bakarra eta egokia.



Azken hitzaldia, Eukeni Olabarrieta medikuak eskeini zuen. «Osasuna eta ingurugiroa» gaia landu zuen. Hitzaldia adibide eta koadro ugari aurkeztuz adierazi zuen. Adibide bikaina aipatu zuen gizakiengan ingurugiroaren eragina ulertzeko: Israelen kanzer mota batzu besteak baino hedatuagoak daude. Judu hauek Estatu Batuetara joan zirenean hurrengo bi belaunaldiak kanzer mota berdina pairatzen zuten baina hirugarren belaunalditik USAKo biztanleen kanzer mota izaten zuten. Interesgarria ordea juduak berriro Israelera itzultzean prozesu berdina ematen zela baina alderantziz. Gero kanzerra zerk eragiten zuen azaltzen zuzendu zen eta harrigarria badirudi ere lehen faktorea elikadura dugu, bigarren kausua taba-

koa, hurrengo kutsadura eta azkenik lan giroa. Bestalde hilkortasunaren kausua garrantzitsuenak honako hauek ditugu: zirkulazio gaitzak, tumoreak, egosbera, biolentzia. Datu guzti hauek eskeini ondoren bakoitzak jakingo du zer egin aurrerantzean, denon erantzunkizuna bait da ingurugiroaren etorkizuna.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Popatik hartzera soldaduzka

Gazteok soldaduzkara joan ez nahi dugula gauz ezaguna da eta eibartarrok ere ez dugu poztasun gehiegirik azaltzen soldaduzkara joateko deitzen gaituztenean. Gehienok ahalagintzen gara nola edo hala soldaduzkatik libratzeko eta horren kasu xelebrea aipatuko dizuet. Bazen Eibarren pertsonai berezi bat, soldaduzkatik libratzeko «epileptikoa» zela alegatu zuena. Bilbotik deitu zuten bere eginkizuna betetzera, Espainia defendatzea alegia, baina bere alegazioak sinesgarritasuna lor zedin. Portugaletera joan zen mozkortzeko asmotan. Benetan galanta harraptu zuen, Crucesko eritetxera eraman zutelarik. Ordu batzu geroxeago mozkorraren eraginak gaindituta, izugarritzko pozez eta ilusioz suspertu zen nahi zuena lortu zuelakoan, epileptikoa aitortzea. Irrifartsu agertu zen medikuaren bulegoan txostenaren bila baina horra hor sorpresa zeren txostenean izugarritzko mozkorratik eraman zutela idatzi ta ikusterakoan. Halere gure bake defendatzaile amorratuak ez zen inolaz ere deprimitu eta beste bide bat aukeratu zuen: OBJEZIOA.

Ea, oraingoan zorte gehiago duen.

TASIO

SARIKETA



Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBEK oparituko duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanetz!

**EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«...eta Kitto Sariketa»**

AYERBE Liburu denda

EUSKARAZ

- OBABAKOAK. Bernado Atxaga
- ZUGARRAMURDIKO KONTESA. Iñaki Bernaola
- HIZTEGIA 2.000
- SATURNO. Arantxa Urretabizkaia


LIBURU SALDUENAK

ERDERAZ

- EL PENDULO DE FOUCAULT. Umberto Eco
- LAS EDADES DE LULU. Almudena Grandes
- LA COLMENA. C.J. Cela
- CABALLO DE TROYA 4. J.J. Benitez

GABON GIROAREN USAINA

Eibarrek urtero bezala aurpegia aldatu du! kaleak bonbila koloredunez hornitu dira, piztea bakarrik falta zaie! Hortxe ibili dira langileak balkoietatik zintzilika armatoste hoiek jarri nahian, herria polita utzi nahian. Andaluziatik etorritakoak dira, ete eurek brometan esan dutenez «ifarralde konkistatza gatoz», Eibartik gero EH-ko beste zenbait tokitara joan behar bait dira argiak jartzera. Gabonetako ideia hau orain dela urte parte bat hasi zen dendarien inizatibaz, eta urtero hobegotzeri joan da, geroz eta argi gehiago jartzen dutelarik. Hala ere ondo egongo litzateke erdikaldean ez dauden kaleak ere pixka bat hornitzea, behintzat gabon giro pixka bat sortzeko. Hala ere zorionak dendarien inizatiba honi ia ideia honekin jarraitzen duten!!!



«Mendo» eta Gelatxo

beste ehun urterako!!



Soinujolian gustukua zara?
Bai? Orduan gaurko kontakizunak pozez irakurriko dozuz. Erromerixa eta berbena talde baten oiñ dala gitxirarte jo izan daben Gelatxo taldeko baterixia zan Mendokin ibili gara barriketan. Urte askotan zihar herririk-herri ibilli da bere taldeko lagunekin batera ta bestea, baztar guztixetan poza ta alaitasuna ereiñaz.

Gelatxo izenaz zer aitzen da?

«Grupua. Hiru lagun giñan. Ni baterixia, sasofoa eta bestiak, Gelatxok berak, soiñua. Taldia Gelatxon izenian dao; Gelatxo da... basarrixan izena. Horren aitxa be soiñujolia izan zan, ta ona!! soiñujole ona!! Ta beste anaia be bai, Ameriketara hil zana.

Ta nik neuk, ekin netzan hamairu urtekin baterixia jotziari. Berez... berez afiziñua!! Zera... Arratera juaten giñanian zera... kolegiñuakin... maixuekin: kolonia esateak orduan ta... orduan potiekin».

Noiz hasi ziñan?

«Tretaiunuan setiembreian hasi nitzan baterixia jotzen ta... gaur amabost arte. Gaur hamabostian egon giñan Urnietan, Sosoka barrixo bat dao han ta... hara urte morduñ juaten gara!! Baiña... ezin neike, anketatik pixkat minduta ta... artosisa be pasau dot pixkat eta... urtiak be bai!! Hirurogeta hamaika datorren hillian.

Eibarren ze...? Berbenetan edo jotzen dozue edo zer?

«Baaai!! Ihes be... karnabaletan da asko juntau zan!! Han iturrixa badao ba... lbarkurutzian, han be jo genduan ihes ta... aurreko urtian eh... beste plazan, bonbeuren parkian aurrian.

Eibarren ze kanbixo ikusi dozu?

«Kanbixua ba... len ba zera:

gauza frankuaua. Len eh... musika plazan ba... jentiak dantzan eitxe eban, ha zan ambientia ha!! Ta... danak ezaunak!!

Eibarren azkenengo... bueno eh... hor plazan, joko gendun el año cuarenta y uno, 22 de julio del cuarenta y uno; gerria eh... gerria Alemaniakin hasi zanian,

eh... juaten dia diskoteketara.

Tokatu jatzu eurixakin?

«Egun onak pasau genduzen, eh... bai, iñoiz bai, iñoiz eurixakin be jo genduan baiña... toldua ipintze ezkuen guri instrumentuak ez zeixazen busti.

«Gelatxok hirurogeta bi euki-koittu, ta bestiak be... sasofoiak behor inguruan. Nauzixena neu, —aittona— esatezten neri. Ta... gu ibilli gara toki guztixetan ta... jente ona ta... geu be portau gero ta... Orixora Santixagokuetan juan giñanian be: —beste ehun urterako!! Beste ehun urterako!!— Beste hogei izanda be: aurtenguakin nik neikua ¡Oiñ trankil-trankik, len beti hara ta hona jun biharra ta...

Irakurri dozu «...eta kitto»-ko ñumeroren bat?

«Baaai; politto, politto, dao j; Jentiak asko irakurtzen dau hamen. Ipiñi ezkeret holan eh... jente popularra, azetaziño gehixau eukitzen dau. Oiñ artekuek be azetaziñua eukin dabela pentsatzen dot nik, personajiak eibartarrak izan dialako. Neri asko gustatzen jata ze... ni leitzen amorratua naiz; liburuak eta... liburu asko dakaraz etxian ta... emonda be bai batzueri ta... gustau eitxen jata ba neri ta... ni ez naiz sekula aburritzen!!

Gelatxoko baterixia da zutaz dakigun izena baiña... zelan deitzen zara?

«Izenez Felix Mendoza Astigarraga naiz, baiña hor eh... behe aldian, Azitaiñen, Mendo esatezte; ta Holantxe... hor daniel, Orixo ta hor daniel Mendoza; izenik eta... iñork eztaki izenik!!

- «Treintaiunotik gaur hamabostearte jo izan dot».
- «Gelatxo basarrixan izena da».
- «Hamairu urtekin ekin netzan jotziari».
- «Oiñ dana diskotekia ta.. holakuak».

ta... hango bonbardeua ta... Orduan Eibarren plazan bi grupo geuazan, ta jo, ta jo, ta jo, ta jo... konpetentzia zeuan ta... etorri zan konzejala ta: —bueno mutillak!! Basta ya de bonbardeo!!!— Bai ba... eskandalua zan... bata hamen eta bestia han da... derri gorrez bulla atara bihar.

Musikan ze kanbixo egon da?

«Dana. Oiñ iñor ezta ikusten, ta...oiñ musikarik, soiñurik eztao. Oiñ dana diskotekia ta. holakuak... Emakumiak batez be oiñ

Ze herritan eztimau zaitxue gehixen?

«Danian, guri danian. Ta... gehixen-gehixen ta onduen hartu gaittuenak Orixokuak izan dia, Santixagokuetan juaten giñan hara ta... han beti ondo hartzen gaittuezan. Orixotik kilometro t'erdira edo holako distantzixara dao barrixuori. Ta han... hogetabertzi aurtenguakin nik, bestiak gehixaotan be egon dia, taldekuak esan gura dot.

Gelatxo grupokuek zenbat urte daukazuez?

Onduen hartu gaittuenak Orixokuak izan dia, Santixagokuetan juaten giñan hara ta. Orixotik kilometro t'erdira edo holako distantzixara dao barrixuori. Ta han... hogetabertzi aurtenguakin nik, bestiak gehixaotan be egon dia, taldekuak esan gura dot.

VINOS OROZ
 EDARI BANAKETA
 Tfn.: 11.11.50 EIBAR

GIZONENDAKO MODA
 SASTRERIA
Astigarraga
 Bidebarrieta 8
 Tf. 11.22.23

GURBIL
Pizzeria Gelatxo
 isasi kalea 1
 ediar tf-111152

Mujika Mh
 HARATEGIA
 Odolosteak Txorizoak
 Bildots eta Txahal
 Bidebarrieta, 12 okelak
 Urkizu, 18 - Telf 120194

BODEGA GIL
 BOKADILO GOXOAK
 San Andres 7, behea.
 Telf: 11 71 84

GARAJE GARCIA
 Austin Rover
 Zerbitzua
 — Fundidores
 — Bidebarrieta 39
 Telf.: 11.22.14 / 11.02.83



- **Pedro Gisasola:** «lege hau martxan jarri ezkerro baserritarrok jai daukagu»
- **Jose Alberdi:** «gaur egun orain dela hogeitun urte bezala esnearen analisiak egin beharko lirateke».
- **Lourdes Urzuriaga:** «behiei urtero egiten zaie azterketak. Gipuzkoan %0,6 atera da gaixorik»
- **Alberto Aldasoro:** «irtenbide on bat baserritarrek kooperatiba bat sortzea izango litzateke»

Baserritarrek esnea zuzenean saldu ezin

Badatoz San Andresak! Untzagan giro polita, oso berezia; baserritarrek euren postuan, urte osoan zainduta gazta, ezti edota fruitu ederrak guri eskainiz. Urtean behin gogoratzen ditugu baserritarrek, oso tipikoa bait da egun hau. Baina hauek ere badituzte hainbat arazo, eta hauetariko bat esnearena da.

1982.ko legeak azaltzen duenez, esnea saltzeko baldintza batzuk bete behar dira, adibidez zisterna espezial batzuk erabili esnearen garraiorako, edo makina berezi batzuk esnea eraitzitzeko, filtratzeko, tenperatura hotzean mantentzeko, etab. Baldintza hauek exenplu txikiak besterik ez dira, legea oraindik luzea da.

Beraz, guzti honi jarraituz, baserritarrek ezingo dute ez merkaturatu, ez etxean, ez inon esnerik saldu. Honek egoera oso larriak sor ditzake, asko eta asko honetaz bizi dira eta. Datuek diotenez, Eibarren 18 urtetik 45-era daukatenean artean %57a baserrian egiten du lan, eta 45-tik 65-erainokoen artean %86a.

Gai honi buruz hitz egiteko **Pedro Gisasola** eta **Jose Alberdi** («**Gisasola**» eta «**Biriñao**» baserrieta-koak) izan ditugu gurekin. Kontatu digutenez «lege hau martxan jarri ezkerro baserritarrok jai daukagu. Egoera honi aurre egiteko bailara guztirako kooperatiba bat sortzea izango litzateke bidezkoena, indibidualki inbertsio demasa izango litzateke eta. Eibarko bailaran projektu honekin hastea nahiko zaila izango litzateke, kooperatiba kokatzeko lurralde laurik ez dagoelako».

Pedro eta **Joseren** ustetan «gaur egun esnearen analisiak egin beharko lirateke, orain dela hogeitun urte bezala. Garai hartan egunero egiten ziren, munizipalak muestrak hartu eta albaitariak analizatu. Horrela

izango balitz jendeak konfiantza gehiagorekin erosi-ko luke esnea, inongo bildurrik gabe. Arazorik larriena da gaur egun udaletxeak ezin duela ezer egin, hau da, ezin du debekatua dagoen zerbait kontrolatu».

Lourdes Urzuriagak, kontsumitzailearen bulego-koak ere bere eritzia eman digu esanaz, «nahiz eta lege hau 1982an ezarria izan, ez da praktikara eraman. Ni ez nago salmenta zuzenaren aurka, osasunarentzat ez dauka arriskurik, gainera edarra diferentzia dauka dendako esnearekin! Azken honen proteinak, grasak, etab. artifizialak dira. Baserrietako behiei urtero egiten zaie azterketa. Behiren batek gaixotasun bat izango balu, osatu edo bestela hil egiten dute. Hala ere Gipuzkoa osoan %0,6 besterik ez dira izan gaixodunak, eta behia osasuntsua bada zaila da esnea txarra egotea. Gainera irakin egin behar da, beraz egon litezkeen mikrobioak desagertu egiten dira. Problema bakarra baserritarrek ura botatzea da, edo adibidez proteina gutxiago eukitzea, baina gaur egungo kompetentziarekin oso argi ibili behar dute».

EHNE-ko (EH-ko Nekazari Elkarte) lehendakariak, **Alberto Aldasorok** dioenez, «legea hor geldi dagoen zerbait da. Badira debeku batzuk, adibidez, baserriko esnea hospitaletan, gozotegietan, etab. eraman saltzea, baina ez da lege honetatik sorturiko debekua, osakidetzak kriterio sanitario batzuk jarraituz sortutakoa baizik. Lege honen alde nago, salmenta zuzenean fraude batzuk gertatu izan bait dira, adibidez esnari ura bota. Hala ere baserritarrek kontzientziatzen hasi dira, geroz eta gutxiago ematen dira kasu hauek. Gaur egun esnearen kalitate maila nahiko ona da. Baserri gehienetan analizatu egiten da esnea». Jarraitzen du esanaz «lege honen aurrean irtenbide on bat baserritarrek bat egitea izango litzateke, gehienbat herri txikietan. Bizkaian badaude helburu honekin sorturiko elkarte batzuk».

ZER DIOZU BASERRITARREK ESNEA ZUZENEAN SALTZEAZ?




Anastasio Egia, 61 urte. Pensionista

Nire ustez ez dago inolako kontrolik, ezta analisisirik ere. Lehen, Errepublikara garaietan, bazegoen, baina orain ez dago eta hau ez zait oso ondo iruditzen.



Agustin, 34 urte. Masajista Baserritarrek betidanik ekarri dute esnea beraien astoekin, eta uste dut tradizio hau galtzea benetan penagarria dela. Niri pena asko ematen dit ohitura hau galtzeak.



Ikasleak

Ez, gu ez gaude bat ere ados lege horrekin, zeren eurek badaukate eskubidea beraien lana egiteko.



Marina, 23 urte. Ikaslea

Txarto iruditzen zait, zeren esnea soberan badaukate zergatik ez dute salduko plazan?



Julia, 67 urte. Etxekoandrea

Nik benetan uste dut ona dela plazan esnea saltzea, zeren plazako esnea merkeagoa izaten da.



Borja Rodriguez, 13 urte. Ikaslea

Niri oso gaizki iruditzen zait zeren esne hoberena eurek saltzen dute. Nik beti baserriko esnea edaten dut, zeren beste esneak kolorante, kontserbante eta holako gauza pila bat dauka.



Esther eta Mari Luz, 14 urte. Ikasleak

Ondo badago esnea pentsatzen dugu sal dezaketela, eta gure ustez oso ondo egoten da.



Rosario Ayuso, 65 urte. Etxekoandrea

Ni ez naiz hemengo eta benetan esaten dizuet ez nagoela oso enteratuta. Hala ere, ez zait oso ondo iruditzen.

AGENDA

Azaroa

• OMICL-KUIB (Kontsumo Bulegoa)

HEZKUNTZA-KULTURA-EMAKUMEA

27an: 7,30etan HITZALDIA. Jostailuei buruzko orientabide pedagogikoak

28an: 7,30etan Jostailuaren publizitatea. HITZALDIA.

29an: 7etan MAHAINGURUA. MOCeko partaideak.

Bizkaiko Emakume asanblada Dendarien elkarte Komertzianten handi bat

Abendua

• EUSKARA BATZORDEA

«Takuan Potian»: «Peruri buruzko audiobisuala» INAKI OSORO Abenduaren 14ean arratsaldeko 7etan Udalean «Euskaraz Jator» kanpaina: 1990. urteko egutegi handiak eta txikiak Eibar osoan banatzea «Oporrak Afariketari»: Gabonetan emanaldi bereziak umeentzat

• KULTURA BATZORDEA

2an: Easo Abesbatza San Andres Parrokian,

gaueko 9etan

3an: II Makilau Maratoia Untzagan

Abenduaren 6an: Kalejira Musika Bandarekin.

8tik 20ra Kultura Aretoa: J.L. Irigoien-en argazki erakusketa.

11tik 18ra: Unibertsitate Laboralak antolatutarik «Eibarko antzerki Taldeen II Antzerki Emanaldia».

15ean, 8retan: Kontserbatorioan «Suzuki» metodoan ikasten diharduten ikasleen bibolin kontzertua

17an, Musika eta Txistulari Banden kontzertua

22an Sostoa Korakal eta Txistulari Bandak Gabon kanten emanaldia eskainiko dute.

Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra bitartean Kultura Aretoa: Alberto Ibañez-en pintura erakusketa.

• KLUB DEPORTIBOKO

ESPELEOLOGI TALDEA

Arno aldeko kobazuloen azterketa Diputaziorako katalogoa egin ahal izateko (abenduaren zehar)

Aixa-ko zuloan topografi lanak egitea (abenduaren zehar)

• «EGUZKI» Antinuklear eta

Ekologi Komiteak

Abenduaren 22-23-24an EUSKAL LIBURU AZOKA Untzagan goiz eta arratsalde:

Abenduaren 23an, J.M. Elexpuruk bere azken liburua aurkeztuko du Udalean arratsaldeko 7etan

Abenduaren 23an Koldo Izagirrek «Dordokak eta elurrak» eta «Balizko erroten erresuma» bere azken liburua aurkeztuko ditu eguerdiko 12,30etan Udalean.

• FAMILI HEZIKETARAKO ZENTROA

(Argatzako Jardiñak)

«Makrame», «Sukaldaritza», «Zumegintza» ikastaroak aurrera eraman.

Bideo-Forum-a ostiral guztietan arratsaldeko 4retan

• SAN ANDRES NEKAZAL ERAKUSKETA

Abenduaren 30ean baserritarren produktoen salmenta eta erakusketa Untzaga Plazan.

• KLUB DEPORTIBOKO

MENDIZALE TALDEA

Abenduaren 16an Barazar-Altube
Abenduaren 14an, Alpes-etako diapositiba emanaldia

NORK

ZER

• Koordinatzailea

Fernando Muniozguren

• Erredakzio-taldea

Ana Aizpurua

Idoia Arrillaga

Mireia Ugarteburu

Idoia Irazola

Fernando Muniozguren

Joseba Zinkunegi

• Argazkilariak

Mikel Gorosabel

José Valderrey

• Maketazioa

José Valderrey

• Komikia

Ander Gisasola

• Inprimaketa

Antza